

«Historia general del País Vasco»

Dakarren metodu edo egin-bideari buruzko

KRITIKA

Presaka agertu jaku garrantzi aundikoa liburu bat: «Historia General del País Vasco» (HGPV), 13 aletan (11'garrena urteteko). Aundia izan da noski egindako indarketa, Euskadi'k merezi duana. Azken urteotan asko izango dira gure erriari buruz idatzi ta argitara emon diran kondairazko estudioak. Eta HGPV au iragarri zanean guztiok uste genduan lanik eder eta zabalena izango zala, Euskadi'k gizaldia zear burutu ditun egiñetatik artu ta osoturiko Edestirik jakingarriena, dudarik gabe. Arrakasta aundia izan eban ortarako egin zan zabalakundeak, eta lan orren sortzailleen izenak, oberenaren zantzu jakuzan. Beste zerbait da itxaropen au asetua geratu danentz.

Amairu ale ditun lana betiko lau aro edo alditan zatiturik dago: Edesti-Aurre ta Antziñ-Aroa (I-II aleak), Erdi-Aroa (III-V aleak), Aro-Modernoa (VI-VII) eta Gaurko-Aroa (VIII-XIII aleak).

Lan aundia eta onurakorra. Baiña, gogo-beteten ete dau ala-olako kritika jaso bat? Nire azterketa, itaun oni erantzuna emoten aleginduko da.

Ortan asteko, eritxia azaltzen ain zuzen, eritxi-emote au oztopo bategaz aurkitzen da lenen-lenengotik: zelako edo nundik norako erizpidez jokatuko dot? Zer dala-ta ori? Lan

c) Oso gitxitan aitatzen dau Ipar-Euskalerrria HGPV'ek. Neurkera ontako lanak merezi leuke Ipar-Euskadi be gogotan artzea, edo-ta beintzat zergaitik ez dan bertan adieraztea bai. Onen zergaitia, nik uste, ez da egongo mugaz zatiturik daukagun euskal-lur politiku-ardurazko batasunik ezean; 13 aleko istori onen azalpenean ain batasun gitxi ikusten bait da, idaz-atal edo ale batzuetan sartu arren, ez leukean «eten-go» edo txarto esango. Edo zergaitik banaka batzuetan agertzen da ta beste batzuetan ez?

d) «Historia General del País Vasco», zabal-aunditasun itxurak, gauza edatuago baten zirrara izten dau gure kautan; baiña onekin ez dator bat, aurka baiño, liburuan bertan nabarmentzen dana: Eliz edo erlejiño istoririk ez daukagu emen, izpirik be, eta illunpe-zulo bizi danak bakar-bakarrik ez daki Eliz-kondairak zelako gora ta inportantzia euki izan dauan gizaldiak zear, eta beraz, mende batzuetan beñik-bein, iñolaz be ezin bananduak dira Euskalerrrian Eliz-istoria ta Euskadi istoria. Edesti orokor ontan, barriz, gitxi baiño ez da aitatzen gure erriaren erlijioñotasuna eta Elizak bertan izan dauan eta jokatu dauan paper aintzagarrria. Utsune ikaragarria dogu onelako istori orokor baten...

e) Benetako sarrera zabal bateren eza, leen esan dogunez, geiago nabari da ale bakotxa aztertzerakoan, naiz-ta labur istoriografi bat, eusko-istoriografi bat ain zuzen, agertzen ez dalako. Gaurko ikerketa egoera azaldu ba eben, auren lana be obeto ulertu eta ebatzia izango zan.

Orobat esan daitegu kondaira aroak mugatzean erabilli diran eritxi ta burubideai begira. Ots: egoki da ala ez, Euskadi'n, olako banaketak egitea? Onurakorrigo izango zan, ezbai barik, guzti ori.

f) Ale edo liburu bakotxak alkarren artean daukien zer-ikusia, barruko mamiñari gagokiozala, ario bakoa ta ezbar-dintasun aundikoa dirudi: azkenengo gizaldi bi bakarrai 6 ale emoten jakez, eta aurreko beste gizaldi guztiai, 7 bakar-bakarrik. Ale, liburu bik titula bat bera eroatea be bitxia da, eta alan be biak urrin dagoz bata-besteagandik, 10'garren alea eta 13'garrena eraturik.

a) Ba-dagoz lan edo ale batzuk, kondaira-ikerketen oraingo une-ingurua adierazo ta argi jarten dauskuenak, orrialde oifnean idazti-oiarrak be ipiñiaz; onek begi aurrean ezarten dausku egilleek ezagutzen dauanaren ikuspegi zabala, edesten dauanaren orainartekoa nunbait, eta aldi berean ortxe oifarritzen ditu bere esanak. Arrigarri auxe dogu, baiña, batzuk onela, olako lanari dagikonez, lan dagielarik, beste batzuk ez dabe edu orretan jokatu nai, eta badaezpadako jokabide onek egillea txantxetan dabilletakoa emoten dau. Batek ez daki egia diñoan ala edestitxo ta ipuiñiak asmatzen dabillen, zabal-tze edo edamen utsezko lanak eskiñirik, irakurleari ez dau-tso beintzat segurantzarik emoten, kondaira-idazleak begi aurrean euki dabezan lanak eta dokumentu agiriak irakurteak emongo leuskion beste.

Au jazoten da batez de 1, 4, 6, 12 ta 13'garren aleetan. Ale bat-baten barruan agertzen dira estilo bikoak, beste batzuetan ale osoak agertzen dira beste batzuekaz egikera bardiñean ez dagozanak. 5'garren alean bertan be, J. K. Baroxa'k idatzitakoa osorik, gorabera ta bardin-az au ikusten da: 293'garren orriraiño metodu batez idazten dau eta gero, 355'raiño beste era batera, au da, aurrerago jarri zituan oar jakingarri barik. Metodu edo idaz-moldea eten egiten dala esan leike, lanok aldi ezbardinietan eta egin-molde diferentez egiñak, baiña oraintxe ale onetan alkarren jarraian ipiñiak dirala.

Lan-naste au eta metodu-ez au argiago agertzen jaku oin-diño M. Gonzalez Portilla'k idatzitako 10 eta 13'garren to-muetan: bestelako eran idatziak dagoz biak. 10'garren alea orrialde oifarrarian bearrezko diran idazti-oiarrez orniduta da-goala, 13'garrenean ez da agertzen olako oar edo aipaminik. Ezmezean geratzen da edonor.

b) Beste zer bat gogoa daroastana, auxe da: lan edo ale bakoixaren asieran naiz amaian ia oso-osorik falta dala bibliografi-zerrenda. Argi nabarmentzen da emen lan au oso-tzerakoan etzala artu guztizko lege ta jokera bardiña: batzuk banaka edesti gaien bibliografi labur bat dakarre, baiña geienak ezer be ez dauskue eskintzen. 1, 2 eta 5 aleetan bat-zuk ba-dakarre zerbait, beste batzuk ezer bere ez; 3, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 12 eta 13'garrenetan ez da agertzen bibliografirik.

c) Oso gitxitan aitatzen dau Ipar-Euskalerrria HGPV'ek. Neurkera ontako lanak merezi leuke Ipar-Euskadi be gogotan artzea, edo-ta beintzat zergaitik ez dan bertan adieraztea bai. Onen zergaitia, nik uste, ez da egongo mugaz zatiturik daukagun euskal-lur politiku-ardurazko batasunik ezcan; 13 aleko istori onen azalpenean ain batasun gitxi ikusten bait da, idaz-atal edo ale batzuetan sartu arren, ez leukean «eten-go» edo txarto esango. Edo zergaitik banaka batzuetan agertzen da ta beste batzuetan ez?

d) «Historia General del País Vasco», zabal-aunditasun itxurak, gauza edatuago baten zirrara izten dau gure kautan; baiña onekin ez dator bat, aurka baiño, liburuau bertan nabarmentzen dana: Eliz edo erlejiño istoririk ez daukagu emen, izpirik be, eta illunpe-zulo bizi danak bakar-bakarrik ez daki Eliz-kondairak zelako gora ta inportantzia euki izan dauan gizaldiak zear, eta beraz, mende batzuetan beinik-bein, inñolaz be ezin bananduak dira Euskalerrrian Eliz-istoria ta Euskadi istoria. Edesti orokor ontan, barriz, gitxi baiño ez da aitatzen gure erriaren erlijifiotasuna eta Elizak bertan izan dauan eta jokatu dauan paper aintzagarria. Utsune ika-ragarria dogu onelako istori orokor baten...

e) Benetako sarrera zabal bateren eza, leen esan dogu-nez, geiago nabari da ale bakotxa aztertzerakoan, naiz-ta la-bur istoriografi bat, eusko-istoriografi bat ain zuzen, agertzen ez dalako. Gaurko ikerketa egoera azaldu ba eben, auren lana be obeto ulertu eta ebatzia izango zan.

Orobat esan daitegu kondaira aroak mugatzean erabilli diran eritxi ta burubideai begira. Ots: egoki da ala ez, Eus-kadi'n, olako banaketak egitea? Onurakorrago izango zan ezbai barik, guzti ori.

f) Ale edo liburu bakotxak alkarren artean daukien zer-ikusia, barruko mamiñari gagokiozala, ario bakoa ta ezbar-dintasun aundikoa dirudi: azkenengo gizaldi bi bakarrai 6 ale emoten jakez, eta aurreko beste gizaldi guztiai, 7 bakar-bakarrik. Ale, liburu bik titula bat bera eroatea be bitxia da, eta alan be biak urrin dagoz bata-besteagandik, 10'garren alea eta 13'garrena eraturik...

g) Lenengo iru liburuetan HGPV'onen lankide ta oso-tzailleen artean agertzen da A. Mafiarikua'ren izena, eta alan be, ez da agertzen edeslari onen lanik.

h) Batasun eta era-kidego onen eza beste zeatzasun batzuetan be argi ikusten da, urrengo ontan, adibidez: azkenengo aurkibideetan, agertzen dira geienbat dagokiezan lanen egilleen izenak, baiña ez beti; 2'garren liburuan, esaterako, izen bat falta da.

Ba-da beste zertzelada bat be garrantzizkoagoa: 12'garren liburuaaren asieran ez da ipiñi egillearen izenik be, enparau lan naiz aleetan egiten dan lez. Beraz, ez dakigu nor dan lan au osotu dauana. Ezta onek ez daroa liburuari dagokion titulu orokorrik be. Beste koska bat oindiño: lan batzuk asieran, lan orrek darabilen gaiaren aurkibide bat dakarre, eta beste batzueri ez jake olakorik jarri.

i) Lan onek, irakurri-ala, egiten dauskun zauskada da: arrapaladan egiña dala, irar-uts edo erratak be asko ta asko daukaz-eta. Au egiztatu al izateko, liburu bat eskuan artzea naikoa dogu: itzak falta dira, eta ferroak, baita ba-dagoz utsunak be gero sartzeko-edo bear litzakezan berbak, eta abar; eta au itzaurretik bertatik asita. Beste zer batzuk be zauskada auxe berau emoten dauskue.

j) Baita nabarmentzen da, eta ez gitxi, toki ta idazleen aurkibiderik eza. Olako aurkibideak, barriz, guztiz onak izan oi dira, esku artean daukagun lako idazlan luzeetan batez be. Edo-ta, azkenean, ale berezi bat izango ete dogu dalako aurkibideaz? Beste ainbeste esan leiteke sigla'z be.

Oarkizun oneik egiterakoan ikusi dogunez, uts eta alderdi igar askotxo daukaz Euskadi osoko edesti onek, nik metodolojiari buruzkoak baiño nabarmendu ez ba'dodaz be, eta begien aurrekoak ez gitxi. Ortiko ondorena, ostera, auxe dogu: lan aundi au ez dala izan «benetan iñok zuzendua», eta gelago, nekez uste izan geinke zuzendaritza ori, liburuak diñoenez, egi-egiaz J. Karo Baroxa'ren eskuetan egon danik. Ez, lan onek, antzeko eritxiz eta lan-gogoz baturik, taldean alkarri lagunduz sort-azotako ekintzaren frutua baiño, metodu

jakin bati jarraitu ta eutsi barik burutu dan lana, au da,
«moltzoturiko» lan-meta geiago emoten dau.

Esandako guzti au onela dala-ta be, lan eskergea onek ba-
ditu bere alderdi on eta garrantzitsuek, ondo be ondo dago-
zanak. Bai, ozen autortu daigun, onako liburuak, euren akats
eta illun-une guztiakaz, oso onurakor ditugu euskaldunok,
erriak eta iker-lanean izerditan gabiltzanok.

Julen Urkiza